

mende antolatu guztia, erakarmena baluke kultur sektoreetan behintzat.

Idealki azken proposamen honen zale litzatekeen honek baiditu hala ere, bere zalantzak. Horretarako dirua behar da, horretarako ideia garbi ikusi behar da, horretarako benetako kontzientzia kulturala eduki behar da. Eta ez du horrelakorik ikusten gurean.

Ez ideia garbirik, ez kontzientzia kultural zehatzik. Eta guzti honi lagunduko liokeen dirua ikusten dut planteamendu honetan urrutien.

Amaitzeko, bada beste arazo bat ere. Nor XXXII. Zinemaldiko Zuzendari? Noiz erabaki behar da hori? Berdin da zuzendaria Carlos Gortari izan ala Antton Ezeiza izan. Zer zuzentzeko zuzendari? Hori bait da, oinarrian, aurtengo Zinemaldian egin den funtsezko galdera.

Ez bait ditugu XXXI eskutik izan, Luis Gaskak hala sinestazahi nahi izan bazigun ere. Karta markatu gehiegiren errezeloa dugu. ■ *Anjel Lertxundi*

KONGRESU BATEZ MADRILEN

Ezagunak dira albisteak. Irailaren 19–25etan Kongresu bat egin da Madril: «Kristauak eta Bakea» zuen gaian. Joan XXIII.a izeneko teologoek elkarteak antolatua. Horren hirugarren kongresua. Aurreko bien gaiak «Teologia eta pobretasuna» eta «Pobreen esperantza, Kristau esperantza» izan ziren.

Aurtengo kongresu honetan, besteran artean, hizlari hauek mintzatu ziren: Carlos Alonso Zaldívar, Angel Viñas, Tomás Borge, Joan Gomis, Carlos Castilla del Pino, Georges Casalis, Enrique Dussel, José L. Aranguren eta Giulio Girardi. Mila eta bostehun bat entzule eta partehartzaile Kongresuan.

Gaurko munduan bakeari eusteko edo bakea egiteko behar diren baldintza politikoak, militarrek, ekonomikoak eta kulturazkoan aztertu ondoren, bakeari buruzko gogoeta teologikoari heldu zion Kongresuak. Ospakizun eukaristiko sinboloz beteriko batez eta azken dokumentu bat irakurriz bukatu zen.

Euskal Herriaren arazoak bere leku nabaria ukan zuen Madrilgo Kongresuan: Mahainguru bat egin zen, «La paz en Eus-

kadi» titulupean, non beren eritzia agertu bait zuten Manu Escudero-k, Eva Forest-ek eta Kepa Bordegaray-k. Beste mainguru batetan, berriz, Jose Mari Setien apezpikuak hartu zuen parte, Euskal Herriaren bakerako Elizaren ekarria aipatuz. Partehartzaileen artean euskaldun mordoska ginen Kongresuan, Gipuzkoatik, Bizkaitik, Gasteiztik eta Iruñetik joanak.

Hala ere, nere eritziz, Euskal Herriko bakearen arazoa bazterreko gai bezala gelditu zen: ukitu beharrekoa, baina Kongresu osoari begira halabeharrezko eranskin gisa. Seguruenik gai mingarriegia zen —da—, Kongresuaren bakeari buruzko gogoetaren eskeman ondo integratzeko; areago, horren muinean ipintzeko.

Nere ustez, Kongresuaren «logika» hautsi egiten zuen nolabait Euskal Herriaren burrukak. Jakinaren gainean nengoen Espainiako kristau ezkertiarren artean ez zela erraza Euskal Herriaren burrukaz mintzatzea. Horregatik banuen neure beldurra, gai hori ukitzean gertatuko zenaz eta ez zenaz. Hala ere, esan beharra daukat, baretasuna eta «bakea» nahiko mantendu zirela, nahiz eta aipaturiko mahainguruko batek demagogikoki txalo errazegiak eta beroegiak atera, eta beste batek baino gehiagok egia garratzak jaulki: tortura, desinformazioaren edo malinformazioaren monopolioa, etab.

Euskal abertzalearentzat —areago ezkerrekoarentzat— ez da gozoa Madrila bakeaz mintzatzera joatea. Apezpikuak berak ere ez zuen oso erraza izan. Hemengo burruka harmatua —«terrorismoa»— argi eta garbi kondentatzen ez baduzu, beste ezeren aurretik, jai duzu; nahiz eta solaskideak zure anaia kristauak, ezkertiarrek edota adiskideak izan.

Bakeari buruzko Kongresu honetan —Euskal Herriatik bakeaz mintzatzean, ezeren aurretik burruka harmatua ez gaitzetera— zure solaskideek azalzuritzat hartzeko arriskua zenuen, edota Kongresuaren dinamikaren haustailetzat.

Hala ere, egia esan, ez zen hainbesteraino garraztu giroa. Kongresuaren «bakearen» faboretan, alboratu, eta ahalean ahaztu egin zela uste dut Euskal Herriaren burruka —harmatua eta beste—, Europako beste Herri «ukatuen» burrukak —harmatua eta beste— ahaztu egin ziren bezala.

Dena dela, Madrilen eta Espainiako Herrietan ez dugu dena beltza, eta muzina. Badira hainbat lagun, komunikabide estatalen —telebistaren, irratiaren eta prentsaren— gure Herriari eta hemengo burrukari buruzko desinformazioa eta malinformazioa gaindituz, Herri honetatik bertatik begiratzen eta ikusten saiatzen direnak. Areago, baditugu gure burrukarekin eta eskabi-deekin bat egiten dutenak ere.

Behin baino gehiagotan salatu zen hauxe: malinformazio eta intoxicazio zentralista, Madrildik bakarrik begiraturaz, hainbat komunikabide estatalek nahiz pribatuk «monopolizatzen» duena, eta Espainiako Herri guztietara zabaltzen. Horrek sortu eta barruraino sartu duena zera da: Euskal Herriaren erreibindikazio eta burruka osoarekiko ukapena, Herria beraganako mesfindantza ez denean. Zalantzarik gabe, barneko «ukapen» eta mesfindantza horrek hartuta aurkitzen dituzu, hasteko, zure solaskide madrildar eta espainiar asko —gehienak?—, gogo oneko lagun «irekiak» edota zure «kideko» kristau bakezale eta ezker-tiar izan arren.

Elkarrekiko mesfindantza eta ukapen mingarri eta guzti, ez dut uste inola ere itxitasunaren, zapuzkeriaren eta etenaren jokabidetatik abiatu behar dugunik. Lan handia egin beharra dugu Espainiako Herrien eta gogo oneko herritarren artean, komunikazioa zabaltzeko eta ez itzeko. Aurrena, komunikabide handien monopolioak eraikitako horma haustea eta eraustea da, hain zuzen ere.

Horixe ikasi dut Madrilgo Kongresuan. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

R.I.E.V.en ARO BERRIA

«R.I.E.V. berriro plazaratzen da, kemen berriekin, zuzendari Julio Caro Baroja jaun ospetsua duela, arazo eta antsia milen agertoki izateko asmoz».

Hona Zuzendaritzaren hitzak. Eta halaxe da izan: 1983ko irailean birsortua da R.I.E.V. aldizkari klasikoa. 1936ko egoerak ekarritako «lozorro hartatik esnatzen» dela orain diote oraingo zuzendariak. (Frankismoak inposaturiko egoera «lozorro»a baino gehixeago ere izan ote den nago, «Lazaroren lozorroa» ez bada behintzat).

R.I.E.V.ekin aldizkari klasiko bat agertzen zaigu berriro. Gogora dezagun 1907an sortu zuela Julio Urkijo jaunak, 1921ean Eusko Ikaskuntzak bere aldizkari zientifiko bezala hartu zuela, Urkijo sortzailearen gidaritzapean beti ere, 1936an, gerrakoan, desagertarazi zen arte, eta ospe handikoa zela jakitun eta iker-tzaile-andana baten lankidetzarekin.

Gaur, atzera plazaratzean, lehengo lepotik du burua